



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK HIRU HITZORDU HANDI DITU PIANOAREKIN 2023-2024 DENBORALDIARI AMAIERA EMATEKO

Bilbo, 2024ko maiatzaren 31n

BOSen 2023-2024 denboraldia pianoaren munduari eta zuzendari handi baten presentziari lotuta dauden hiru hitzordu handirekin itxiko da.

Gure lehen hitzordua igande honetan, ekainaren 2an, izango da, **Yuja Wang** piano-jotzaile txinatarrak eskainiko digun errezitaldiarekin. Pianista honen ezaugarri nagusiak bere teknika liluragarria, interpretazio espresiboa eta presentzia eszeniko karismatikoak dira.

Errezitaldian S. Barber, D. Xostakovitx eta F. Chopinen piezak eskainiko dizkigu eta, seguruenik, urteko musika-hitzordu handienetakoa izango da.

Bigarren hitzordua, halaber, gure ganbera-denboraldiari amaiera emango dion errezitala da, kasu honetan bi piano-jotzailearen eskutik, 2019an gure denboraldi sinfonikoaren eta ganbera-denboraldiaren barruan eskaini zituzten kontzertuetara joan zen publikoaren artean sentsazio izugarri ona utzi zutenak.

Lucas & Arthur Jussen anaiak BOSeran itzultzen dira ekainaren 3an, W. A. Mozart, F. Schubert, F. Chopin, C. Debussy eta S. Rakhmaninoven obren interpretazioez gozatzeko aukera eskainiz.

Aste bereko ostegun eta ostiralean BOSekin bat egingo dute 2023-2024 denboraldiari amaiera emateko. Ekitaldian S. Barber, W. A. Mozart eta J. Brahmsen obrak interpretatuko dira. Zuzendari gonbidatu gisa gaur egungo artista ospetsuenetako bat izango dugu, **Leonard Slatkin**. 2022an, BOSen mendeurreneko kontzertuan, G. Mahlerren *2. Sinfonia do minorrean "Berpizkundea"* ahaztezina eskaini zigun. Hori etenik gabe interpretatuko da M. Ravelen *Deux mélodies hébraïques*, *Kaddisch*-en ondoren.

Pianoa protagonista nagusi duten hiru hitzordu, hiru interprete nagusiren eta bere curriculumaren arabera New Orleans, St. Louis, Washington DC, Londres, Detroit eta Lyongo orkestrerako zuzendari titularra ez ezik, Pittsburgh, Los Angeles, Minneapolis eta Clevelandeko orkestren zuzendari gonbidatua izan den zuzendari baten eskutik.

2024ko ekainaren 2a, igandea. 19:30ean
Euskalduna Jauregia

Piano errezitaldia YUJA WANG

<https://www.bilbaorquestra.eus/eu/kontzertuak/yuja-wang-piano-errezitaldia/>

2024ko ekainaren 3a, astelehena. 19:30ean
Euskalduna Jauregia

Ganbera demboraldia

BAKARLARI HANDIAK ERREZITALDIAN LUCAS & ARTHUR JUSSEN, PIANO DUETOA

<https://www.bilbaorquestra.eus/eu/kontzertuak/camara-10-7/>

2024ko ekainaren 6an, osteguna, eta 7an, ostirala. 19:30ean
Euskalduna Jauregia

Denboraldi sinfonikoa SLATKIN ETA JUSSEN ANAIK

Leonard Slatkin, zuzendaria
Lucas y Arthur Jussen, piano duetoa

<https://www.bilbaorquestra.eus/eu/kontzertuak/slatkin-eta-jussen-anaiak/>